begirada

90

azaroa
2023

Photo by Guido Klumpe / Cropped from original

Lege-gordailua BI-1163-05

ikus pegi
Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila
Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

EGOITZA-DOKUMENTAZIOA EDO IKASKETENGATIKO EGONALDI-BAIMENA INDARREAN DUTEN ATZERRITARRAK EAE-N, 2022

Begirada honetan, EAEn egoitza- edo egonaldi-dokumentazioa indarrean duten atzerritarren administrazio-egoera aztertuko dugu, Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazioetako Ministerioak argitaratutako datuetan oinarrituta. Datu horiek erregistro-ziurtagiria edo egoitza-txartela indarrean duten Atzerritarren Estatistiketan eta indarrean dauden ikasketengatiko egonaldi-baimenetan oinarritzen dira, eta Atzerritarren Erregistro Zentraletik ateratako fitxategietatik abiatuta egiten dira. Estatistika horretatik abiatuta aztertuko ditugu indarrean dagoen egoitza-dokumentazioa duten pertsonen kopurua, bilakaera eta ezaugarriak; horretaz gain, erregularizazio-tasa zenbatetsiko dugu, eta EAEn urtean emandako baimenak aztertuko ditugu.

1 EAEn egoitza- eta egonaldi-dokumentazioa indarrean[1] duten atzerritarrak

Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazioetako Ministerioak argitaratutako datuen arabera, 2022ko abenduaren 31n EAEn atzerriko 167.866 pertsonak zuten egoitza-dokumentazioa indarrean eta 1.226k ikasketengatiko egonaldi-baimena (1. taula). 2013. urtea erreferentziatzat hartuta, azken bederatzi urteetan egoitza-baimenen bat duten atzerritarren kopuruak gora egin du: 44.793.

1. grafikoa

Egoitza-baimena indarrean duten atzerritarrak. Banaketa ehunekotan, Lurralde Historikoaren arabera, 2022



Iturria: Erregistro-ziurtagiria edo egoitza-txartela indarrean duten atzerritarren estatistikak. Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazioetako Ministerioa. Txostengileek egina

Lurralde Historikoen arabera, eta pisu demografikoarekin bat etorriz, egoitza-dokumentazioa indarrean duen atzerritar kopuru handiena Bizkaian dago (82.725 pertsona, % 49,3), ondoren Gipuzkoan (54.432 pertsona) eta, azkenik, Araban (30.709 pertsona, % 18,3).

1. taula

EAEn eta Lurralde Historikoetan egoitza-dokumentazioa indarrean duten atzerritarrak

	Indarrean dauden ikasketetarako egonaldi-baimenak (EAE)	Indarrean dauden egoitza-dokumentazioak			
		EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2013	1.123	123.073	24.844	61.405	36.824
2014	1.275	122.333	24.305	60.771	37.257
2015	911	124.670	24.518	62.045	38.107
2016	1.131	126.767	24.867	62.153	39.747
2017	1.103	132.662	25.808	64.812	42.042
2018	1.114	136.838	26.414	66.450	43.974
2019	1.195	144.532	27.875	70.773	45.884
2020	621	146.651	28.518	72.241	45.892
2021	1.008	154.786	29.200	76.260	49.326
2022	1.226	167.866	30.709	82.725	54.432

Iturria: Erregistro-ziurtagiria edo egoitza-txartela indarrean duten atzerritarren estatistikak eta indarrean dauden ikasketetarako egonaldi-baimenak. Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazioetako Ministerioa. Txostengileek egina

[1] Begiradaren amaieran, glosario bat dago, honako kontzeptu hauei buruzkoa: indarrean dagoen egoitza-dokumentazioa, egoitza-dokumentazio motak, egoitza-baimenaren arrazoiak, emandako egoitza-baimen mota eta ikasketetarako egonaldi-baimena.

2. grafikoak erakusten du egoitza- edo egonaldi-dokumentazioa indarrean duten atzerritarren bilakaeraren joera. Dokumentatutako pertsonen hazkundeak EAEko atzerritarren kopuruaren hazkundearen antzeko joera jarraitzen duela ikusten da[2]. 2013 eta 2016 artean ez da aldaketa handirik gertatu; migrazio-aldi horren ezaugarri nagusia da 2008ko krisitik irteten hasi izana, eta horrek EAEko atzerritarren kopurua geldiaraztea eragin zuen. 2016 eta 2019 artean, gora egin du egoitza-dokumentazioa indarrean duten atzerritarren kopuruak; migrazio-aldi hori krisi osteko susperraldiaren eta hazkunde ekonomikoaren testuinguruak bultzatutako migrazio-fluxuen gorakadak ezaugarritzen du. 2019 eta 2020 artean, hazkundearen geldialdia gertatu zen berriro, eta, are gehiago, behera egin zuen ikasketengatiko baimenen kasuan, COVID-19aren krisiaren ondorioz; 2021etik aurrera, berriz, gora egin du berriro, testuinguru ekonomiko eta lan-testuinguru hobearekin bat eginez. Lurralde Historiko guztietako joera antzekoa da, eta ez dago alde handirik. Hala ere, adierazi behar da 2021etik 2022ra bitarte hazkundea biziagoa izan dela Bizkaian eta Gipuzkoan; Araban, aldiz, gorakada ez da hain nabarmena izan.

[2] EAEko migrazio-fluxuei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu 84. Begirada: https://www.ikuspegi.eus/documentos/panoramicas/pan84eus.pdf

2. grafikoa

EAEn eta Lurralde Historikoetan egoitza- edo egonaldi-dokumentazioa indarrean duten atzerritarrak 2013-2022 (absolutuak)



Iturria: Erregistro-ziurtagiria edo egoitza-txartela indarrean duten atzerritarren estatistikak eta indarrean dauden ikasketetarako egonaldi-baimenak. Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazioetako Ministerioa. Txostengileek egina

2 Atzerritar pertsona erregularizatuen tasa zenbatetsia

Egoitza- eta egonaldi-dokumentazioaren gaia aztertzerakoan, funtsezko alderdi bat da jakitea atzerritar guztien artean zenbat dauden dokumentatuta. 3. grafikoak erakusten du erregularizatutako atzerritarren gutxi gorabeherako tasaren bilakaera. Estimazio hori oinarrituta dago egonaldi- edo egoitza-dokumentazioa indarrean duten atzerritarren ehunekoaren kalkuluan, erroldatutako atzerritarren guztizkoaren gainean[3]. Emaitzen arabera, 2021eko amaieran, EAEn erroldatutako atzerritarren % 84,4k egoitza-dokumentazioa indarrean zuen, eta % 15,6k, berriz, administrazio-egoera irregularrean zegoen. 2013tik izandako bilakaerak erakusten du okerrera egin duela atzerritar kolektiboaren egoera administratiboak. 2013an, erregularizazio-tasa zenbatetsia % 87,1ekoa zen; hau da, ehuneko 2,7 puntu handiagoa 2021ekoarekin alderatuta. Ildo horretan, ikusten dugu 2015ean lortzen dela atzerritar nazionalitateko biztanleria erregularizatuaren ehuneko estimatu handiena (% 89,4); minimoa, berriz, 2020an aurkitzen dugu (% 80,1). Aldaketa horien azalpenetako bat migrazio-fluxuetan aurkitzen dugu.

[3] Tasa zenbatetsi hori bi erregistro-base desberdinetatik abiatuta kalkulatzen da. Alde batetik, biztanleen udal-errolda (EIN) eta, bestetik, erregistro-ziurtagiria edo egoitza-txartela indarrean duten atzerritarren estatistikak eta indarrean dauden ikasketetarako egonaldi-baimenak (Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazioetako Ministerioa).

3. grafikoa

EAEn erregularizatutako atzerritarren tasa zenbatetsia (%)



Iturria: Erregistro-ziurtagiria edo egoitza-txartela indarrean duten atzerritarren estatistikak eta indarrean dauden ikasketetarako egonaldi-baimenak. Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazioetako Ministerioa. Txostengileek egina

4. grafikoa

EAEn erregularizatutako atzerritarren tasa zenbatetsia, sexuaren arabera (%)



Iturria: Erregistro-ziurtagiria edo egoitza-txartela indarrean duten atzerritarren estatistikak eta indarrean dauden ikasketetarako egonaldi-baimenak. Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazioetako Ministerioa. Txostengileek egina

Migrazioa hazi den aldietan, erregularizazio-tasak behera egiten du, eta EAEra iristen diren pertsona asko administrazio-egoera erregularizatu aurretik erroldatzen dira. Bestalde, etorkinek prozesu horretan aurkitzen dituzten administrazio-izapide, betekizun eta oztopoen ondorioz, joera dago dokumentaziorako sarbidea denboran luzatzeko. Ildo horretan, 2015etik aurrera migrazio-fluxuek izan duten gorakadak azaltzen du erregularizazio-tasa estimatuaren beheranzko joera-aldaketa. Bestalde, COVID-19ak izapidetze administratiboan sortu zuen eragina ere adierazi behar da.

3 Egoitza-dokumentazioa eta ikasketengatiko egonaldi-baimena indarrean duten nazionalitateak

Nazionalitateen araberako banaketari erreparatzen badiogu (5. grafikoa), Errumania (% 16,6) da EAEn 2022ko abenduaren 31n egoitza-dokumentazioa indarrean duen nazionalitate nagusia, eta haren atzetik daude Maroko (% 11,2), Portugal (% 6,7), Kolonbia (% 4,9) eta Nikaragua (% 4,2); gainerako nazionalitateak, berriz, % 4tik behera daude. Nazionalitateen banaketa horrek antzekotasun eta desberdintasun batzuk ditu EAEn erroldatutako atzerritar jatorriko pertsonen jatorri nagusiekin[4]. Oro har, erroldatutako biztanleriaren jatorri nagusiak bat datoz egoitza-dokumentazioa indarrean duten nazionalitate nagusiekin; hala ere, alde batetik, atzerritar jatorriko biztanleriaren ehuneko handi batek Espainiako nazionalitatea eskuratu du, eta, bestetik, erregularizazio-prozesuetarako sarbidean dagoen desberdintasuna dela-eta, aldeak daude egoitza-dokumentazioa indarrean duten nazionalitate nagusien eta erroldatutako jatorri nagusien sailkapenen artean. Ikasketengatiko egonaldi-baimenei dagokienez, nazionalitate nagusiak Kolonbia (% 12,9) eta Estatu Batuak (% 11,9) dira.

[4] EAEn erroldatutako atzerritarren jatorri nagusiei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu 84. Begirada: https://www.ikuspegi.eus/documentos/panoramicas/pan84eus.pdf

5. grafikoa

EAEn egoitza- edo egonaldi-dokumentazioa indarrean duten atzerritarren banaketa (%), nazionalitatearen arabera (hogei nazionalitate nagusi), 2022



Iturria: Erregistro-ziurtagiria edo egoitza-txartela indarrean duten atzerritarren estatistikak eta indarrean dauden ikasketetarako egonaldi-baimenak. Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazioetako Ministerioa. Txostengileek egina

Egoitza-dokumentazioa indarrean duten hogei nazionalitate nagusien sexuaren araberako banaketari erreparatuz gero (6. grafikoa), maskulinizazio- eta feminizazio-maila desberdinak ikusten dira. Hala, nazionalitate maskulinizatuenen artean (gizonen % 60 baino gehiago) Senegal, Portugal, Aljeria, Pakistan eta Erresuma Batua daude, eta feminizatuenen artean (emakumeen % 60 baino gehiago), berriz, Nikaragua, Paraguai, Honduras, Brasil eta Ukraina. Desberdintasun horiek nazioarteko migrazio-fluxuen hainbat ezaugarrik azaltzen dituzte; fluxu horiek feminizatuagoak daude latinoamerikarren kasuan, eta maskulinizatuagoak Afrikatik eta Asiatik datozen fluxuen kasuan.

Egoitza-dokumentazioa indarrean duten hamar nazionalitate nagusien sailkapenaren bilakaerari dagokionez (2. taula), 2013 eta 2022 artean ez da aldaketarik izan hiru nazionalitate nagusietan. 2013tik Errumania da sailkapenaren buru, Maroko eta Portugal atzetik dituela. Gainerako posizioetan, ordea, izan dira aldaketak. 2022an, 2013arekin alderatuta, Ekuador, Brasil, Paraguai, Bolivia eta Aljeria sailkapenetik atera ziren, eta Nikaragua, Ukraina, Venezuela, Pakistan eta Italia sartu ziren.

2. taula

EAEn egoitza-dokumentazioa indarrean duten hamar nazionalitate nagusi, 2013/2016/2019/2022, (absolutuak)

2013		2016		2019		2022	
Errumania	20.765	Errumania	23.446	Errumania	26.238	Errumania	27.788
Maroko	14.794	Maroko	15.276	Maroko	17.415	Maroko	18.847
Portugal	9.700	Portugal	10.263	Portugal	10.855	Portugal	11.262
Bolivia	8.437	Txina	5.803	Txina	6.380	Kolonbia	8.173
Kolonbia	6.967	Bolivia	5.407	Kolonbia	5.488	Nikaragua	7.111
Txina	5.377	Kolonbia	4.832	Bolivia	4.856	Txina	6.559
Aljeria	4.024	Pakistan	3.563	Nikaragua	4.680	Ukraina	5.924
Ekuador	3.641	Aljeria	3.558	Pakistan	4.442	Venezuela	5.657
Brasil	3.217	Nikaragua	3.352	Italia	3.872	Pakistan	5.275
Paraguai	3.039	Paraguai	3.282	Aljeria	3.596	Italia	4.794

Iturria: Erregistro-ziurtagiria edo egoitza-txartela indarrean duten atzerritarren estatistikak. Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazioetako Ministerioa. Txostengileek egina

6. grafikoa

EAEn egoitza-dokumentazioa indarrean duten hogei nazionalitate nagusien sexuaren araberako banaketa (%), 2022



Iturria: Erregistro-ziurtagiria edo egoitza-txartela indarrean duten atzerritarren estatistikak. Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazioetako Ministerioa. Txostengileek egina

4 Egoitza-dokumentazio eta ikasketengatiko egonaldi-baimen motak eta baimena emateko arrazoiak

Egoitza-dokumentazioari dagokionez (7. grafikoa), 2022an % 54,3k zuen egoitza-baimena, % 45ek erregistro-ziurtagiria eta % 0,7k ANT-Ateratze-akordioa. Egoitza-baimena Europar Batasunetik kanpoko herritarrek eskura dezaketen dokumentua da; erregistro-ziurtagiria Europako Erkidegoko herritarrentzat eta senideentzat da; eta Brexitaren ondoriozko ANT-Ateratze-akordioa britainiarrentzat eta senideentzat. Egonaldi-baimenei dagokienez, % 96,5 ikasleei ematen zaie, eta beste % 3,5 senideei.

7. grafikoa

Atzerritarren banaketa EAEn (%), egoitza- edo egonaldi-baimen motaren arabera, 2022



Iturria: Erregistro-ziurtagiria edo egoitza-txartela indarrean duten atzerritarren estatistikak eta indarrean dauden ikasketetarako egonaldi-baimenak. Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazioetako Ministerioa. Txostengileek egina

8. grafikoa

EAEn egoitza- edo egonaldi-baimenen banaketa (%), emateko arrazoiaren arabera, 2022



Iturria: Erregistro-ziurtagiria edo egoitza-txartela indarrean duten atzerritarren estatistikak eta indarrean dauden ikasketetarako egonaldi-baimenak. Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazioetako Ministerioa. Txostengileek egina

Bestalde, 8. grafikoak indarrean dauden baimenen portzentajezko banaketa erakusten du, emandako baimenen arrazoiaren arabera. Ikus daitekeenez, egoitza-baimena indarrean duten atzerritar gehienek (zehazki, % 51,7k) iraupen luzeko egoitza nazionala dute, eta, ondoren, salbuespenezko inguruabarrengatik aldi baterako egoitza duten pertsonek (% 19,2). % 10 baino gutxiago dira besteren konturako lanagatik aldi baterako egoitza dutenak (% 9,8), EBko zuzentarauko % 5,5 iraupen luzeko egoitza dutenak, % 3,8 familia biltzeagatik aldi baterako egoitza dutenak eta % 3,5 aberrigabea izategatik egoitza dutenak; gainerako arrazoiak, berriz, % 2tik beherakoak dira. Emaitza horien arabera, dokumentazioa indarrean duten atzerritar gehienek iraupen luzeko egoitzaren bat dute.

Egoitza- edo egonaldi baimena duten pertsonen sexuaren araberako banaketari erreparatuz gero (9. grafikoa), ikusten da oreka dagoela guztira (% 50,5 gizonezkoak eta % 49,5 emakumezkoak). Hala ere, kasu batzuetan baimen-mota maskulinizatuagoak ikusten dira, eta beste batzuetan feminizatuagoak. Ematearen arrazoi maskulinizatuenen artean, honako hauek daude: besteren konturako lanagatik iraupen mugatuko egoitza (% 91 gizonezkoak), EBko zuzendaritzako iraupen luzeko egoitza (% 76,4 gizonezkoak), besteren konturako lanagatik aldi baterako egoitza (% 67,6 gizonezkoak), aberrigabeak izateagatik egoitza dutenak (% 58 gizonezkoak), 14/2013 Legeko aldi baterako egoitza eta beste batzuk (% 56,5 gizonezkoak) eta nazioarteko babesagatik egoitza dutenak (% 54,4 gizonezkoak).

Egoitza emateko arrazoi feminizatuen artean, familia biltzeko aldi baterako egoitza (% 63,2 emakumezkoak) eta salbuespenezko inguruabarrengatik aldi baterako egoitza (% 56,8 emakumezkoak) daude. Emaitza horiek erakusten dute maskulinizatutako motibo horien artean lan-motakoak, aberrigabeak eta nazioarteko babesekoak nabarmentzen direla, eta feminizatuen artean, berriz, familia biltzea eta salbuespenezko inguruabarrak nabarmentzen dira.

9. grafikoa

Egoitza- edo egonaldi-baimena duten pertsonen banaketa (%) EAEn sexuaren eta baimena emateko arrazoiaren arabera, 2022



Iturria: Erregistro-ziurtagiria edo egoitza-txartela indarrean duten atzerritarren estatistikak eta indarrean dauden ikasketetarako egonaldi-baimenak. Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazioetako Ministerioa. Txostengileek egina

5 Emandako egoitza-baimenen fluxua

Atal honetan, EAEn atzerritarrei emandako egoitza-baimenen fluxuak aztertuko ditugu, hau da, urtero ematen diren horiek. 10. grafikoak 2016. urteaz geroztik urtean izandako dokumentu-kopurua erakusten du. Urte horretan, 23.700 egoitza-baimen eman ziren EAEn, eta 2017an 22.422. Goranzko joera 2019an hasi zen, eta urte horretan 26.275 eman ziren. 2020an, COVID-19a gorabehera, 23.664 egoitza-baimen eman ziren, eta 2021ean, berriz, 28.212.

10. grafikoa

EAEn emandako egoitza-baimenen kopurua, 2016-2022 (absolutuak)



Iturria: Erregistro-ziurtagiria edo egoitza-txartela indarrean duten atzerritarren estatistikak. Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazioetako Ministerioa. Txostengileek egina

11. grafikoak baimen-motak erakusten ditu, eta atzerritarren erregularizazio-prozesuaren bilakaerari buruzko irudi garbiagoa izateko aukera ematen digu. Zortzi egoitza-baimen mota daude: hasierakoa, lehenengo berritzea, bigarren berritzea, salbuespenezko berritzea, luzapena, behin-behineko baimena, aldaketa eta berreskuratzea. Grafikoan ikusten denez, baimen-mota horien artean ohikoenak hasierakoa, aldaketa eta lehen berritzea dira. Beraz, kontuan izan behar da 10. grafikoko emandako egoitza-baimen guztiak ez datozela guztiz bat administrazio-egoera erregularrean lehen aldiz dauden atzerritarrekin.

2016an, emandako egoitza-baimenen % 60 hasierakoak izan ziren, % 25 aldaketa bategatik eta % 11 lehen berritze bategatik. 2021ean, ehunekoek alde batzuk erakusten dituzte: hasierakoak (% 48) jarraitzen du izaten baimen-mota nagusia, baina ehuneko hamabi puntu jaitsi da 2016arekin alderatuta; aldaketaren ondoriozko baimenak ehuneko sei puntu egin du gora, % 31raino, eta baimenak lehen aldiz berritzeagatik (% 12) antzeko ehunekoari eutsi dio. Azkenik, % 7 luzapenak dira, ziurrenik COVID-19tik eratorritako zailtasun administratiboen ondorioz.

11. grafikoa

EAEn emandako egoitza-baimen motaren banaketa (%), urtearen arabera



Iturria: Erregistro-ziurtagiria edo egoitza-txartela indarrean duten atzerritarren estatistikak. Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazioetako Ministerioa. Txostengileek egina

6 Ondorioak

1. 2022ko abenduaren 31n, EAEn atzerriko nazionalitatea zuten 167.866 pertsona zeuden bizileku-agiriekin indarrean, eta 1.226 ikasketengatiko egonaldi-baimenarekin. 2013az geroztiko bilakaerak erakusten du egoitza-dokumentazioa indarrean duten pertsonen kopuruak gora egin duela, eta EAEra iristen diren atzerritarren migrazio-fluxuek antzeko joera izan dutela.

2. 2021erako erregularizatutako atzerritarren tasa zenbatetsiaren arabera, EAEn erroldatutako atzerritarren % 84,4k dokumentazioa indarrean du. Adierazle horren bilakaera migrazio-fluxuen joeraren mende dago: horiek gora egiten dutenean, tasak beheranzko joera du; fluxuak moteltzen edo txikitzen direnean, berriz, adierazle horrek gora egiteko joera du.

3. Egoera erregularizatua duten atzerritarren tasa zenbatetsia handiagoa da gizonezkoetan, eta txikiagoa emakumezkoen kasuan. 2021ean, tasa % 88,1ekoa zen gizonezkoen kasuan, eta % 80,6koa emakumezkoen kasuan. Alde horiek konstante bat dira 2013tik. Datu horiek adierazten dute emakume atzerritarrek baldintza okerragoak dituztela erregularizazio-prozesuetan sartzeko.

4. Egoitza-dokumentazioa indarrean duten nazionalitate nagusiak Errumania, Maroko eta Portugal dira. Hala ere, adierazi beharra dago sailkapen hori nazionalizazio-prozesuak —biziagoa Latinoamerikako nazionalitate gehienen kasuan— eta erregularizazio-prozesuan sartzeko oztopoek baldintzatzen dutela.

5. Urtero ematen diren egoitza-dokumentazioak kontuan hartuta, baimen-mota nagusia egoitzaren hasierakoa da, eta, ondoren, aldaketak eta lehen berritzekoak. COVID-19aren krisiaren nolabaiteko eragina ere ikusten da, luzapen bidezko baimenen igoerarekin.

Glosarioa

Indarrean dagoen egoitza-dokumentazioa: Atzerritarrak identifikatzeko dokumentua, Espainian duten legezko egoera egiaztatze aldera.

Egoitza-dokumentazio motak: Hiru egoitza-dokumentu mota daude: EBko zirkulazio libreko erregimenaren onuradunentzako Erregistro Ziurtagiria edo familien txartelak; Brexitaren ondoriozko ANT-Ateratze-akordioa eta atzerritartasun-erregimen orokorraren mende dauden atzerritarrentzako egoitza-baimenak, 14/2013 Legearen babesean emandakoak barne.

Egoitza-baimenaren arrazoiak: Atzerriko nazionalitatea duten pertsonei atzerritartasun-erregimen orokorrean ezarritako egoitza-baimena emateko arrazoiak.

Emandako egoitza-baimen mota: Egoitza-dokumentazioari emandako baimen-mota da. Zortzi mota daude: hasierakoa, 1. berritzea, 2. berritzea, berrikuntza berezia/ohiz kanpokoa, luzapena, behin-behineko izaera, aldaketa, berreskuratzea.

Ikasketetarako egonaldi-baimena: Espainian laurogeita hamar egun baino gehiago egoteko gaitzen duen baimena da, Espainian baimendutako irakaskuntza-zentro batean ikasketak egiteko edo zabaltzeko, lanaldi osoko programa batean, baldin eta ikasketa-titulu edo -ziurtagiri bat lortzera bideratuta badago.